

# ZAM

ZORROTZ MORROTZA • Zorrotza Center • 85.ailea • 2024ko urtarria



## IBONE PEREA, JOSU ÇARBAJALES, eta INIGO MONTES

Urrezko domina Espainiako Hapkido txapelketan eta entrenatzailea



Imajinatzen duzu Zorrotza merkataritzarik gabe?

Baduzu eskaintzarik onena Zorrotzatik irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

# EROSI AUZOAN!

[www.comerciantes-zorrotza.com](http://www.comerciantes-zorrotza.com)

aek

23.korrika

# DENDA BILBON

Loteria 3,  
Bilboko Zazpikaleak

- Ostegunetan, 17:00-20:00
- Ostiraletan, 17:00-20:00
- Larunbatetan, 10:30-13:30  
eta 17:00-20:00



Irundik Balonarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Izan  
Korrika  
laguntzailea  
EKIN  
KORRIKARI!



korrika.eus





**ZORROTZ MORROTZ**  
Zorrotzako herri aldizkaria

85. alea. 2024ko urtarrila

[www.zorrotzmorrotz.eus](http://www.zorrotzmorrotz.eus)

[zm@zorrotzmorrotz.eus](mailto:zm@zorrotzmorrotz.eus)

@ZorrotzMorrotz

@zorrotzmorrotz

@zorrotzmorrotz

Argitaratzen du:

**Zorrotzako Euskal Txokoa**

**Erredakzioa:**

Ibai Barrios

Ainara Garcia

Igor Gutiérrez

Aitor Marín

Naróa Peña

Iratze Pérez

**Laguntzaileak:**

Manu Cobo

Asier Urkiza

**Koordinazioa:**

Naróa Peña

**Diseinua eta maketazioa:**

Aitor Marín. (amc diseinua)

**Zuzenketak:**

Iñigo Ramirez de la Piscina

Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du. Edukiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

**Bilbao**  
EUSKAL  
HERRIKOA

sarrera

## Hobekuntzak lortzeko lanean jarraituko dugu 2024an ere

**D**akizuenez, Auzo Elkartea hilean behin Osasun-zentroaren aurrean elkarretaratzera deitzen ari da osasun sistema publikoa eta kalitatezkoa aldarrikatzeko. Aspalditik Osakidetza noraera salatzen ari gara. Gure osasun-beharreri eraginkortasunez erantzungo dien osasun-sistema publiko eta duina jokoan dugu. Egingo diren deialdi berriei adi egotera animatu nahi zaituztegu.


Bestalde, hasiak dira Auzo-etxe berria eraikiko den orubearen egokitzapen lanak, Zaharren Egoitzaren ondoan hain zuzen ere. Zentro berriak udal zerbitzuak integratuko ditu eta auzoko bizitza soziala dinamizatzeko balioko du. Azkenik, aspaldiko aldarrikapen hau gauzatu du eta datozen urteetan.

Aparkalekuen azuia ere oso gai konplexua da, eta irtenbide baten bila jarraitzen dugu. Zaila da hirigintzaren aldetik oinezkoentzat irisgarriagoa izango den auzoa lortzea aparkatzeko tokirik galdu gabe. Badakigu biak beharrezkoak direla eta irtenbideak lortzen saiatuko gara.

Nahiko genukeen erritmoan ez bada ere, auzoarentzat hobekuntzak lortzen ari gara. Urteetan zehar errepikatu dugun bezala, erresistentzia lasterketa batean murgilduta gaude, eta auzoa hobetzeko asmoz irmoki jarraituko dugu lanean. Horretarako, zuen laguntza ere beharrezkoa dugu. Gure bileretan parte hartzea gonbidatzen zaituztegu, asteartero 19:00etan Auzo-etxean.



**zorrotz**  
auzo elkartea



### IZAN ZAITEZ HARPIDEDUNI!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com) helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarriz

**BAR VENECIA**

Espezialitateak:  
Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro eslrata IO

**AUPA ATHLETIC**

**ZORROTZA F.C.**  
kirolarekin,  
auzoarekin eta  
euskararen alde!

**SATZ**  
OKINDEGIAK

**Zorrotzako labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34  
Tfn. 94 441 09 71  
Zorrotza - 48013 BILBO

**Lápices**  
LIBURVENDENDA

Untziola kalea, 8  
ZORROTZA



## Auzokide Planan txertatzeko proposamen berriak aurkeztu ditu Auzo Elkarteak

Barrutiko Kontseiluak onartu beharko ditu, legealdi honetako auzoak hobetzeko planean sartzeko. Zorrotzaganako haur-parkean estalki bat jartzea, edo FEVE geltokia eta Txorrillo artean oinezkoen segurtasuna hobetzea dira, besteak beste, Auzo Elkartearen beste eskarietako batzuk.

AITOR MARÍN

Bilboko Udalak 2024-2027 Auzokide Planaren jarduera-eremuak aurkeztu ditu. Lau urteko plan horren helburua auzo bakoitzean hobekuntza-proiektuen plangintza, garapena eta haien gauzatzea adostea da. Hasierako proposamen hori barrutiko kontseiluetara eramaten da. Organo horretan, barruti bakoitzeko ordezkari politikoak eta auzotarrak daude, eta bertan erabakiko da proposatutako jarduketak egingo diren ala ez, eta iradokizun edo ekarpen berriak txertatzeko aukerarik dagoen ala ez.

Normalean 7 milioiko aurrekontua izaten da Auzokide Planarentzat barruti bakoitzean. Herri Lan eta Zerbitzuen Arloak gure 8. Barrutiko (Basurtu-Zorrotz) auzo-elkarteei helarazi dizkien proposamenak ez dira 4 milioi eurora iristen, eta, beraz, hobekuntza-iradokizun berriak egin daitezkeela uste da.

Proposamen horietako lauk Zorrotzari eragiten diote, eta bakar batek Basurturi. Zorrotzako Auzo Elkarteak ohartu bezala, orain arte aurkeztutako proposamenetan ez da kontuan hartzen Olabeagan, Altamiran, Mintegitxuetan edota Kastrexanan egin beharreko ezer.

Zorrotz Morrotzek eskuratu ahal izan duen hasierako dokumentuan proposatutakoari jarraiki, Zorrotzarako lehenengo proposamena Azoka parkean egingo lirateken hainbat hobekuntza zehatzetan datza, hala nola zoladura, txorkoak eta bankuak berritzea, eta lorategietako hormatxoak aprobetxatuz estantzia-eremu berriak sortzea. Horrek guztiak 500 mila euroko aurrekontua izango luke. Bigarren jarduera-eremua, Auzo Elkarteak Txinbo parkean azken urteotan behin eta berriz eskatutako komun publiko bat instalatzea izango litzateke, eta 300 mila euro



Aurreko orrialdean, Auzo Elkartek estaltzea eskatuko duen Zorrotzaganako haur jolasgunea.

Honen gainean: ezkerrean, Udalak Zorrotza Kastrexana errepiderako aurreikusitako konponketa eremu honetara ere hedada dila eskatu dute; eta Zorrozgoitibideko espaloi tartea hau (eskuinean) Auzokide Planan sartzea nahi du Auzo Elkartek

bideratuko lirateke horretarako. Gainera, Bilboko Udaleko Herri Lanen Arloak proposatu du 500 mila eta 600 mila euro bideratzea, hurrenez hurren, Bidegain Etxaldeko berdegunean atsedenleku bat ezartzeko, bankuak, mahaiak eta iturriak izango dituen, bai eta Zorrotza Kastrexana errepidean irisgarritasuna eta oinezkoen segurtasuna hobetzeko ere, “Txorrillo” izenez ezagutzen den eremuan.

Plan honetako proposamen guztiak mar txoan onartu beharko lirateke Barrutiko Kontseiluan, pertsonal teknikoak beharrez-

ko balorazio ekonomikoak egin ondoren. Auzo elkartek eskatzen dute beraiek aukeratu ahal izatea zer jarduera egingo diren eta berriak proposatu ahal izatea. Zorrotzaren kasuan, Auzo Elkartek udal gobernari eskatuko dio Zorrotza Kastrexana errepidea Txorrillon konpontzeko proposamena FEVEren trenbide-pasaguneraino hedada dila. Era berean, Zorrotzaganako haurrentzako jolasgunerako estalki bat jartzea eta Zorrozgoiti bideko 5. eta 15. zenbakien arteko espaloiaren konponketa ere legegintzaldi honetako planera gehitzea eskatuko du Auzo Elkartek.

## **Gurutzetako ospitalerako eta Zorrotzarako sarbide zuzena zabaldu dute BI-10 autobidean Ezkerraldeetik datozen ibilgailuentzat**

### **ZORROTZ MORROTZ**

Urtebete inguru lanean eman eta 3,9 milioi euro inbertitu ondoren, abenduaren 21etik Ezkerraldeetik datozen gidariek zuzeneko sarbide berria dute Zorrotzara edo Gurutzetako ospitalera joateko.

Sarbide berriak BI-10 eta N-634 errepideak lotzen ditu: BI-10 errepidean irteera-adar berria dago N-634 errepiderako, eta biribilgune batek adar hori N-634 errepidearekin

eta azken horretatik BI-10 errepidera sartzeko adarra lotzen ditu. Gainera, oinezkoen pasabide berria dago sarbide berria gainetik zeharkatzeko. Beraz, ez dago zebra-bidea erabili beharrik eta horri esker arriskua txikituta da.

Sarbide hau egin baino lehen, Ezkerraldeetik zetozen ibilgailuek Ugarteko irteera (Max Center merkatalgunearen inguruan) hartu behar zuten auzoraino heltzeko.

## Martxan da *Ikusi eta Ikasi* haurrei eta familiei zuzenduta euskaraz aritzeko eta jostatzeko udal programa

ZORROTZ MORROTZ

Beste urte batez, aisialdiaren bidez familietan euskara sustatzeko Ikusi eta Ikasi programa martxan dago. Egitaraua adin tarte bakoitzaren arabera moldatzen da: *Altzoan*, 2 eta 3 urte bitarteko txikiak familiarekin jolas-teko saioak; *Familian*, 4 eta 8 urte bitarteko umeak familiarekin batera sormena lantzeko tailerrak; eta azkenik, *Lagunartean*, 9 eta 11 urte bitarteko umeak lagunekin batera ondo pasatzeko tailerrak. Modu batera zein bestera parte hartzeko 60 saiorekin osatuta-kirzokuitu erakargarria eskainiko da.

Ekitaldi horietako hiru Zorrotzako Udaltegian izango dira: otsailaren 27an bilduko diren 4 eta 8 urte bitarteko parte hartzaileek nahieran eta irudimenaren laguntzarekin, pertsonaia

koloretsuak sortuko dituzte “peg dolls” dela-koarekin: astronautak, munstroak, piratak... Eta maiatzaren 3an, eva gomaz, kartulinaz eta beste material batzuek mozorro mitologi-koak prestatuko dituzte tailerrera bertaratuko diren parte hartzaileek.

Bestetik, 2 eta 3 urte bitarteko haurrek, euskal abestiekien esku jolasak eginez, familian gozatzeko aukera izango dute apirilaren 25ean.

Batean zein bestean parte hartzeko izena eman behar da urtarillaren 15etik 28ra bitartean webgunean. Aisia, kultura eta heziketa uztartzen dituen programa honek hogeita bat urte bete dituen aurtun, eta Bilboko haurrei eta haien familiei euskaraz aritzeko eta jostatzeko aukera ematea du helburu.

## Ibilka Teatro eta Heyoka Clown konpainien saio bana Zorrotzan *Bilboko Zirkuিতua* programaren barruan



ZORROTZ MORROTZ

Ibilka Teatro eta Heyoka Clown konpainiek “*Cuando secuestramos al jefe*” eta “*Las Franciskas*” aurkeztuko dituzte hurrenez hurren Zorrotzako Udaltegian Bilboko Udalak antolatutako

2024ko Bilboko Zirkuিতua ekimenaren barruan. Antzezlan hauetaz gozatu ahal izango dugu otsailaren 1ean eta apirilaren 18an hurrenez hurren, biak 19:00etan hasita.

Lehen aldiz Bilboko Zirkuিতura iritsiko den antzerki-proposamen honetan, bi gazte dira protagonistak. Dirurik ez, baina plan zehatza dute Paulak eta Miguelek: Erregea akatzea. Planak perfektua zirudien arren, gauzak ez dira aurreikusitako bezala ateratu, eta gazteek pisua eta gosaria partekatu behar dituzte Espainiako estaturarekin. Bitartean, Espainiako Erregea bere betebeharretatik kanpo dagoela, Zarzuelan beste estatu-kolpe bat egon daitekeela susmatzen hasiko dira.

Bilboko Zirkuিতuaren edizio berri hau urtarillaren 11n hasi zen Errekaldeko Udaltegian “*Relax a trois*” antzezlanarekin eta maiatzaren 9an amaituko da Basurtun Noduluz Teatroko “*Carmen*” antzezlanarekin. Guztira, hiriko auzoetan doako hamasei antzerki proposamen egongo dira ikusgai.

## Ekitaldi ugari Euskararen Eguna ospatzeko

ZORROTZ MORROTZ

Pasa den abenduko lehen asteburu osoan, Euskararen Nazioarteko Eguna kari (3an ospatzen dugu), hainbat ekitaldi ederrez gozatu ahal izan genuen auzoan eta auzoaren eskutik. Haien artean, nabarmenena Euskal Txokoak antolatzen duen urteroko bertso afaria. Puntatuko saioa zalantzarik gabe Arrigorri jatetxean izan genuena: etxekotzat dugun Arkaitz Estiballes gai-jartzaile, Eneko Abasolo (Abarkas) eta Aitor Etxebarriazarraga aritu ziren bertsolari.



Horrez gain, Patata Tropikalaren “Azken eguzkilorea” haurrentzako antzerkia eta Oihan Vega umoristaren “Euskañolitis” izeneko bakarriketarekin gozatzeko aukera izan genuen.

## 2025eko maiatzean izango da hurrengo Euskaraldia eta udaberrian egiten hasiko dira

ZORROTZ MORROTZ

Udaberrian izango da hurrengo Euskaraldia, 2025ean: maiatzaren 15etik 25era hain zuzen ere. Ohiturari jarraituz, aurreko egitea tokatuko litzateke, baina Korrika eta Euskaraldia urte berean ez egitea ere bada aldaketaren xede bat. Baina horretaz gain, aldaketa honen xede nagusia ekinaldia indartzea da. Izan ere, udaberrian txapak udazkenean baino agerikoagoak izatea espero da, kalean jende gehiago ibiltzean baita, eta, era horretan, hizkuntza ohituretan eragiteko lanean urrats handiagoa egitea.

Azken Euskaraldiaren balorazioaren ostean baikor agertu ziren antolatzaileak, ariketa «eraginkorra baita», baina onartu zuten egitasmoa indartzeko premiari buruzko iritzia ere zabaldu zirela. Aldaketekin «ilusioa» piztu nahi dute antolatzaileek berriz gizar-tean. Udaberriera ekarrita errazagoa izango dela uste dute, kalean «bizitasun sozial» handiagoa izango dela sinetsita. Egitasmoaren funtsa bera ez da aldatuko: hizkuntza ohiturak aldatzea da helburua, euskararen alde. *Belarriprest* edo *ahobizi* rol biren artean erabaki behar izango dute parte hartzaileek.

# ehbildu

# ETORKIZUNA GARA.



**ASKABIDE**  
kultur elkartea  
**ZORROTZA**

# // Ahalegin handia eginda, baina helburuak gauzatzea lortu dut //

## MARÍA MARGARIDA FERNÁNDEZ

**Jaiotokia:** Luanda. (Angola)

**Noiztik:** 1990etik Bilbon. 2005etik Zorrotzan.

**Adina:** Ez esatea betiereko gaztetasunaren sekretua da.

**Lanbidea:** Delineatzaile proiektugile.

Oso gazte heldu zen María Bilbora bere ama eta anai-arrebekin. Zaila izan bazaio ere, herri honi eskertuta dago helburuak lortu dituela harro esan dezakeelako, eta auzoan pozik bizi da bere senarra eta alaba txikiarekin.

**TESTUA:** AINARA GARCÍA | **ARGAZKIAK:** AITOR MARÍN

### Nolatan edo zergatik etorri zinen?

Egia esan, akats batengatik, gure benetako helmuga Ingalaterra baitzen. Angolako desgongkortze politikoaren beldurrez, gure amak korrika prestatu zuen bidaia eta Espainiarako bisa ortu zuen Bilboko lehengusu baten laguntzarekin Ingalaterran asilo politikoa lortzeko paperak ondo prestatzeko asmoz. Gure ama eta adin txikiko sei seme-alabak ginen. Azkenean, ezin izan zuen Ingalaterran asiloa lortu.

### Gogorra egin zitzaizun hemengo bizi ohituretara moldatzea?

Bai, familia osoari oso gogorra egin zitzaigun. Ideia bat egiteko, amari ilea guztiz zuritu zitzaion 40 urte eskasekin... Luandan, Angolako hiriburuan bizi zen goi mailako familia ginen. Gurasoek ikasketak zituzten, lana eta diru nahikoarekin, atzerrira bidaia ugari eginda... eta bat-batean bizitza hankaz gora jarri zitzaigun: etxerik gabe, dirurik gabe, edozein lanen bila... Zorionez, amak beti gure kabuz moldatzeko eta bizitzan autonomoak izateko beharrezkoa erakutsi zigun. Hezkuntza maila handia izateaz gain, eta nahiz eta etxean sukaldari eta langile ugari

egon, oso txikitatik janari ezberdinak prestatu eta etxeko lan ezberdinak egiten genituen. Horri esker Bilbora heltzean, familia ezberdinen etxeetan lan egiteko guztiz prestatuta geunden eta bizitzeko diru nahikoa lortzen genuen. Hona heltzean oso gaztea nintzen. Seme-alabak oso gazte izan nituen. Etorkina, emakume gaztea, aitaren laguntzarik gabeko bi ume hezi behar eta goi mailako ikasketak egiteko asmoarekin... Ahalegina izugarria izan da, baina zorionez, nire helburu guztiak gauzatzea lortu dudala esan dezaket. Eta herri honi oso eskertuta dago.

### Zer da hona heltzean gehien harritu zintuena?

Barregarria iruditzen zait orain, baina hona heltzean, laurogeita hamargarren hamarkadan, kalean txakur kaka pila bat ikusten zen. Gu, inozo, pertsonak kalean kaka egiten zutela pentsatzen genuen! Bestalde, Bilboko erdialdean ibiltzean, adinekoak guri begiratzeko biratzen ziren eta txutxumutxuka entzuten genituen. Nire ama gizajoak, Londres ondo ezagutzen zuenak, asko haserretzen zen eta beti esaten zuen: "Hau Ingalaterran ez da gertatzen". Eta guk barre egiten genuen ez zitzaigulako bost ere axola.



**“ Saltzaile eta zerbitzari lanak izan nituen arren, nire helburu nagusia Delineatzaile Proiektugile eta Obra Zibileko Planen teknikaria ikasketak amaitzea zen. Lortu nuen eta gaur egun Bilbao Kirolaken eta Bilbao Ekintzan obra arduradun lana egiten dut**



### **Oso ezberdina zen zure jatorriko bizimodua hemengoarekin alderatuta?**

Bizi maila aldaketa bortitzez aparte, eguraldia guztiz ezberdina zen. Hondartzan denbora ugari ematen genuen Angolan, arropa arinarekin... Gaur egun oraindik ez dut hotza batere gustuko. Musika ere deigarria egin zitzaidan. Niri popa gustatzen zitzaidalako eta herri hau oso rockeroa zelako.

### **Zein da zure lanbidea?**

Saltzaile eta zerbitzari lanak izan nituen arren, nire helburu nagusia delineatzaile proiektugile ikasketak amaitzea zen. Hasita nituen hegazkineko laguntzailea izateko ikasketak utzi behar izan nituen haurdun geratu nintzelako. Aurrerago delineatzaile proiektugile eta eraikuntzako teknikaria izateko tituluak lortu nituen eta Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Aldundiaren proiektu ugari parte hartu dut (Supersur, Interbiak...). Gaur egun Bilbao Kirolaken eta Bilbao Ekintzan obra arduradun lana egiten dut.

### **Zelan moldatzen zara euskaraz?**

Hitz gutxi batzuk ezagutzen eta erabiltzen ditut. Lana lortzeko bultzada garrantzitsua litzateke baina ikasteko oso-oso zaila iruditzen zait. Hala ere, euskaraz abestea asko gustatzen zait. Udalaren abesbatzako partaidea naizenetik euskal kantuekin maiteminduta nagoela jabetu naiz.

### **Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizuna?**

Jendea, giroa... Ikasketak bukatu ahal izateko bi urterako etorri nintzen eta hemeretziru urte daramatzat. Hemen bizitza berregiteko aukera izan dut orain nire senarra denarekin eta alaba txikiarekin. Zorrotzarekin, eta euskaldunekin oro har, hasieran konektatzea zaila bada ere, behin ezagutzen zaituztela oso eskuzabal, maitakor eta abegikorrek zarete. Giro ederra dago. Auzoan eta eskolan ekintza ugari egoten dira, haietan parte hartzen saiatzen naiz eta oso ondo pasatzen dut.

### **Zure herrira berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?**

Ez, bizitza gehiena hemen igaro ondoren, jada bilbotar sentitzen naiz. Hala ere, ez ditut nire sustraiak ahazten. Talentu lehiaketa bateko saria irabazi ondoren bertako petrolio-plataforma batean lan proiektu batzuk egiteko aukera izan nuen, baina 2012ko krisi ekonomikoagatik ez zen ezer egin. Nire herriari laguntzeko zerbait egiteko aukera berriak izateko irrikitan nago. Honi lotuta, oso garrantzitsua iruditzen zait etorkinak ondo hartzea, Euskal Herria solidarioa izan dadila. Hezkuntza espezializatua eskainita adibidez, behin prest egonik haien jakinduria erabiltzeko hemen edota jatorrizko herrietara prestatuak bueltatzeko aukera emanda bertako egoera hobetzeko. Nire ustez “gehitzeko eta ez kentzeko etortzea” funtsezkoa da.

# ZMeko webgunea martxan dago

Abian da zorrotzmorrotz.eus.  
Paperean ez ezik, hemendik  
aurrera gure eduki guztiak  
sarean ere egongo dira  
irakurgai, eta ZMeko ale  
zahar guztiak ere  
deskargatu daitezke

**TESTUA:** AITOR MARIN

1995eko irailean argitaratu zuen Zorrotzako Euskal Txokoa Kultur Elkarteak Zorrotz Morrotz aldizkariaren lehen alea. Lau orrialdeko eta tinta bakar batean inprimatutako lehen argitalpen hura, Bilbon argitaratu zen lehen herri aldizkaria izan zen. Zorrotzako postontzi ez-tietan banatu zen lehen ale horretatik denbora asko igaro den arren, asmoa berdina da gaur egun: Zorrotzako auzoari informazioa euskaraz emateaz gain, euskararen presentzia handitzea du helburu Zorrotz Morrotzek, egunero erabili ahal izateraino.

Eta bide horretan, Zorrotz Morrotzek beste aurrerapauso bat eman du. Hemendik aurrera, paperean ez ezik, gure albiste, erreportaje, eta elkarrizketa guztiak irakurgai egongo dira gure zorrotzmorrotz.eus webgune berrian ere. Eta ez hori bakarrik: argitalpen zaharrenak digitalizatu ditugu eta hemen deskargatu ahal izango dira gure ale guztiak PDF formatuan; harpidetza eskatu daiteke aldizkaria zuen postan jasotzeko, eta abian jarriko dugun agendan, gure auzoan programatutako jarduera guztien berri izateko aukera egongo da. Eta, gainera, indartu egingo ditugu sare sozialetan ditu-

gun profil guztiak. Beraz, gure irakurle guztiak animatzen ditugu sare sozialetan ere gu jarraitzera.

Erronka handia bada paperezko komunikabide batentzat bizirautea, zer esanik ez tokian tokiko aldizkari bat bada 2024ko gizarte globalizatuan. Eta zailtasun hori biderkatzen da gurea bezalako inguru erdaldun batean euskara hutsean badihardugu. Beraz, bidea ez da erraza izan, jakina. Baina zorionez, harro esan dezakegu aldizkari egiturarik gabe hasi zen erronka hura gaur egun finkatuta dagoela 24 orrialdeko bihilabete-kari bihurtuta. ZM Bilbon bizirautean duen paperezko proiektu bakarrenetarikoa da eta auzoko proiektu komunikatiborik sendoena ere bada, euskara hutsean, eta auzoan hizkuntza bultzatzeko helburuari utsita.

Hasierako lehenengo ale hartatik, hazten joan ziren proiektua eta aldizkariaren orrialde kopurua. Inolako maiztasun finkorik izan gabe, 7. alerako, ZM hamabi orrialdeko argitalpen finkatua zen. 8. alean, azala koloretan inprimatu zen lehendabizikoz, eta 2001ean, 20 orrialde bazituen jada Zorrotz Morrotzek. 2005etik 2009ra 36 orrialdeko argitalpen



**1995ean lehen  
ale hura argitaratu  
genuenean  
bezala, Zorrotza  
euskalduntzen  
jarritzeko helburu  
eta grina berberei  
eutsita sarera egin  
dugu jauzi orain**



bihurtu zen, baina urtean ale bakarria argitaratuta. Garai haietan bizitako krisialdiak asko mugatu zuen elkarteak aldizkaria kale-ratzeko jasotzen zuen udal diru-laguntza, eta horrek eragin handia izan zuen proiektuan.

2010etik bi saiakera egon ziren aldizkaria berpizteko, eta urte hauetan bi ale baino ez ziren argitaratu (2010ean eta 2013an). Harik eta 2015ean, erredakzio-taldeko kide baten kanpo-lanaren erdi-kontratazioaren bidez, proiektuak behar zuen bultzada jaso zuen arte. Hala ere, diseinu, maketazio, kudeaketa eta koordinazio lan teknikoak izan ezik, Zorrotz Morrotzeko erredakzio taldeko kide guztiek zentimo bakar bat ere kobratu gabe jarraitzen dute funtsezkoena egiten, hau da, argitalpenaren edukiak idazten. Hala izan da 1995ean argitaratu zen lehenengo egunetik, eta horrela izaten jarraitzea nahi dugu. Eta gainera, gogoratu nahi dugu gure erredakzio taldea ez dela talde itxia. Aitzitik, oso pozik hartuko genuke gure proiektuan lagundu nahiko lukeen edonor, bai edukia idazten edota proiektua bera garatzen. Gure webguneko “harpidetza” atalean gurekin harremanetan jarri besterik ez duzue.

Baztertuta izandako publizitateak eragindako diru-sarrerak berriek ere garrantzi handia izan zuten hasierako gastuei aurre egin ahal izateko, eta une hartatik komunikabide honetan webgunean zerrendatuta topatu daitezkeen

eta iragarri diren auzoko merkatari eta ostalari guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu.

Itzela da honaino heldu izana. Ez sinesteko! Izan ere, proiektu xume honek Zorrotza euskalduntzeko bidean ekarpen handia egin duelakoan gaude. Baina iragana ahaztu gabe, etorkizunera begiratzeko ere garaia da. Eta proiektuaren etorkizuna bermatu nahi badugu, aro digital honetan, sarean egoteak berebiziko garrantzia dauka. Eta horregatik, eta 1995ean lehen ale hura argitaratu genuenean bezala, Zorrotza euskalduntzen jarraitzeko helburu eta grina berberei eutsita sarera egingo dugu jauzi orain. Espero dugu gustuko izatea, eta plataforma apal honek helburu horietan aurrera egiten jarraitzeko balio izatea.

**JOSU CARBAJALES, IBONE PEREA**  
**eta IÑIGO MONTES:** Urrezko domina Espainiako  
Hapkido txapelketan eta entrenatzailea

**/// Ez genuen espero txapelketa irabaztea, disfrutatzera eta lan ona egitera joan ginen ///**



Berrogeita hamarna urte pasatxo dituzte Ibonek eta Josuk. Lehenengoa zorrotzarra, bigarrena Gurutzetakoa, biak orain dela gutxi hasi ziren Hapkidoan. Iñigo Montes auzotarra dute maisu Ratxei klubean eta berak animatu zituen txapelketan parte hartzera. Gaur euren gimnasia hurbildu gara momentu horiek gogoratu eta arte martzial horren berezitasunak ezagutzera

**“ Iñigok animatu gintuen txapelketan parte hartzera. Bera sinetsita zegoen emaitza ona lor genezakeela. Gu ez gara sekula txapelketa batean egon eta ez genuen gure burua prest ikusten, urte gutxi daramagu hapkidoa praktikatzen**

**“ Bestelako arte martzialetan ez bezala, hapkidoan ez da gaitasun edo indar berezirik behar, teknika praktikatzen duenaren pertsonara moldatzen da**



Argazkia: Euskadiko Taekwondo Federazioa

**Espainiako txapelkunak... Zer da zehazki irabazi duzuen?**

Espainiako Hapkido Txapelketan urrezko domina lortu dugu, bikotekako Master Kiu 2 mailan. Mailak adinaren eta gerrikoaren kolorearen arabera dira. Gure kasuan, 51 urtetik gorakoon eta gerriko beltzik ez dugunon maila da, erdaraz “promesa” izenez ezagutzen dena. Banaka, binaka, hirunaka ala taldeka parte har daiteke.

**Zer da Hapkidoa, zehatz mehatz?**

Korean XX. mendean sorturiko arte martziala da, defentsa pertsonalerako teknika-multzoa proposatzen duena. Bestelako arte martzialetan ez bezala, ez da gaitasun edo indar berezirik behar, teknika praktikatzen duenaren pertsonara moldatzen da. Horregatik, adin eta gorpuzkera guztietako

jendeak garapen-maila egokia lor dezake. Txapelketei dagokienez, ez da sexuagatik bereizketarik egiten, adibidez. Esan daiteke beste kirol edo arte martzialetako lehia-logikak ez duela zentzurik gurean, oso inklusiboa da. Horrez gain, etengabeko eboluzioan dago.

**Txapelketan, beraz, koreografia bat anitzen da?**

Eraso eta defentsa egoera baten simulazio errealistak dira. Ez da teknika erakusketa huts bat, ezta borroka bat ere, bitarteko gauza bat da. Indarra erakutsi behar da baina ondo neurtu behar da: pertsonen artikulazio eta abarrek in lan egiten denez, kalte larriak eragin ditzakegu. Eta hori guztia denbora tarte mugatu batean, geldiunerik gabe.



Josu, Ibone eta Iñigo Sergio González Kantabriako zuzendari teknikoarekin, haiekin "coach" lanetan aritu zena Argazkia: Euskadiko Taekwondo Federazioa

### **Nola neurtzen da zein den onena?**

Bost epaile daude. Puntuaziorik txikiena eta handiena kentzen dira eta gainerakoe-kin batezbestekoa egiten da. Gure asma nota ona ateratzea zen baina ondo pasatze- ra joan ginen. Ez genuen espero txapeldun geratzea!

### **Nola erabaki zenuten lehiaketan parte hartzea?**

Iñigok animatu gintuen, bera sinetsita zegoen emaitza ona lor genezakeela. Gu ez gara sekula txapelketa batean egon eta ez genuen gure burua prest ikusten, urte gutxi daramagu hapkidoa praktikatzan. Baina azkenean maisuari kasu egin genion, izena eman, eta hilabetez gogor entrenatu gintuen. Eta egin genuen! Podiumera deitu gintuztenean ez genekien zergatik zen, zur eta lur geunden!

### **Zergatik hasi zineten hapkidoan?**

*Ibone:* Txikitik taekwondoa egiten nuen baina nire adinarekin ez nuen nire burua ikusten bueltatzeko, malgutasun eta sasoi fisikoa behar delako. Aldiz, hapkidoaren eraginkortasunak, zure baldintzak zein diren ere egin dezakezun guztiak, horrek erakarri ninduen.

*Josu:* Nire semeak taekwondoa egiten zuen, eta erakustaldiak ikustera joaten nintzenez, taekwondokoaren ostean hapkidoa zetoarren. Nik arte martzialak oso gustuko ditut betidanik, eta pare bat urtez buruan izan eta gero, azkenean izena eman nuen. Hapkidotik erakartzen nauena da oso anitza dela. Eta bestetik, kirol honek defentsarako duen ahalmena, erasotzaileari eragiten diozun mina kontrola dezakezulako hura geldiarazi eta biolentzia gehiago ekiditeko.

## // Txapelketarako astebete falta zenean bizkarreko galanta jaso nuen eta lesionatuta nengoela uste nuen. Zorionez, jausten ere propio ikasten dugu //

Ahazteko ez duzuen momentu bat?

*Ibone:* Txapelketan Sevillako maisu batek urdui nengoen galdetu zidan eta neure burua Macarenako amabirjinari gomendatuko niola erantzun nion, izan ere txikitari birjina horren mantutik pasa nindutelako. Hara non maisu hura Macarenako lepakaria zen! Bada, txapelketaren ostean kofradiara bisita ederra egin zigun eta oso lagun egin ginen.

*Josu:* Entrenamenduak oso gogorrak dira, kolpe, erorketa eta bihurturak praktikatzan direlako. Bada, txapelketarako astebete falta zenean, jaurtiketa bat egin zidaten eta bizkarreko galanta hartu nuen. Gogoratzen dut lurlean nengoela pentsatu nuela: "Akabo". Zorionez, ondo jausi nintzen, hori ere propio ikasten dugulako.

*Iñigo:* Txapelketan gaixotasun larria duen kirolari bat atera zen, taldekako lehia, kide guztien buruzagi. Erakusketa bitartean jasotako beroa eta osteko txalo zaparrada ez dauzkat ahazteko. Horrek definitzen du ondoen hapkidoa zer den.

### Zenbat pertsona mugitzen zarete hapkidoaren inguruan?

Kirol federatua gara, taekwondokoaren federazio berean gaude. Halaber, EAEn ez gara kirolari asko, horregatik prestatuta

daudenez zuzenean Espainiako txapelketan izena ematen dute. Gure kluba EAeko bakarra da "txuktoa" (banbuzko espata tradizional korearra) erabiltzen irakasten duena, adibidez.



## ZORROTZA HERRIGINTZAN



**ZORROTZAKO BATZOKIA**

Erreserbetarako telefona: 94 405 92 63  
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



## AGENDA

### Otsailak 1, ostirala

19:00 Udaltegian.

**BILBOKO ZIRKUITUA:**  
**ANTZERKIA:**

**IBILKA TETARO: "Cuando secuestramos al jefe"**

### Otsailak 27, asteartea

18:00 Udaltegian.

**IKUSI ETA IKASI**

**familian euskaraz gozatu:**

**TAILERRA:**

**Egurrezko panpinak**



## "Bizkarsoro"

[www.bizkarsoro.eus](http://www.bizkarsoro.eus)

Bizkarsoro herria ez da existitzen, baina, era berean, Euskal Herriko edozein herri izan daiteke. Bizkarsorotarrak fikziozko pertsonaiak dira, eta, era berean, euskaraz bizitzeagatik jazarriak izan diren euskaldun guztiak dira Bizkarsorotarrak. 1914tik 1982ra bitartean gertatzen diren bost istorioak – *Ama*, *Anti*, *Subandila*, *Hitzak* eta *Alaba*– osatzen dute filma. Ahozko lekukotzetan eta idatzitako testuetan oinarritutako fikziozko bost testigantza XX. mendeari errepasso soziopolitiko, ekonomiko, kultural eta linguistikoa emateko.

Euskara jomugan duen oldarraldia aspalditik datorren auzia da, azkenaldian gogor jotzen ari bada ere, eta hala erakutsi nahi zan du Josu Martinez zuzendariak.

Bilbon Loraldia festivalaren barnean ikusgai egongo da filma martxoan.

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko agendetan (aldizkarian eta webgunean) iragartzeko, [zm@zorrotzmorrotz.eus](mailto:zm@zorrotzmorrotz.eus) helbidera idatzi.



## Maitasun kapitala

Karmele Jaio Eiguren.

Elkar. 2023. 240 orrialde.



Emakume ahaldundua eta kontzientziatua izan arren, liburuiko protagonista bere bikotekideak abandonatzen duenean pott eginda geratzen da, eta galdera sortzen da orduan: zer da maitasuna gure bizitzetan? Nola konfiguratu gaituzte, beste alor guztietan pertsona independenteak izan arren, harreman sentimentaletan hain menpeko eta zaugarri izateko?

Gasteizko idazlea bueltan da bere laugarren eleberriarekin. "Amaren eskuak" (2008), bere lehenengo eleberriak sari ugari jaso zituen, zinemara eraman zuten, eta hainbat hizkuntzatarara itzuli dute. "Aitaren etxea" (2019) aurreko lanak berriz, arrakasta handia lortu zuen kritikaren eta publikoaren aldetik, eta Euskadi Literatura Saria irabazi zuen.



## LEIHOTIKAN "Etorkizuna ginenean"

(Txorimalo Records) 2023



30 urte pasa dira Iruñeako lau gaztek musika afizioa medio elkartu zirelarik. Eta badira 25 urte jada lehenengo diska argitaratu zutenetik. Hemen ditugu Leihotikan banda mitikoa 8 abestiz osatutako "Etorkizuna ginenean" lan berria aurkezten.

Beti Gor diskoetxearekin ibili ondoren, hauen jubilazioa dela eta Txorimalo Records zigilua sortu eta aurrean Durangoko Azokan lehenbiziko aldiz stand propioarekin aritu dira egunero buru-belarri.

Lan berriari dagokionez, Gorka Urbizu musikari ezagunak ekoizpen prozesuaren ardurua hartu du. Taldearen aspaldiko lagun eta jarraitzailea izanik, bere ikuspuntua eta berezko nortasuna ederki islatu ditu. Lanari izena ematen dion abestian, gainera, gitarra eta ahotsak sartu ditu. Emakume ahotsak ere entzun daitezke Jule Goñi nafarraren eskutik, emaitza polita zinez.

Abesti berriak Eñaut Gaztañaga Ezpalak taldeko gitarra jotzailearen Gaztain estudioetan grabatu dituzte, eta masterizazioa, aldiz, Bartzelonako Ultramarinos-en Victor Garcíaren eskutik. Diseinu ederraz Ander Xabier Tejada arduratu da, eta CD formatuaz gain binilo elegante batean ateratu dute. Punk-rock talde soil bat baino gehiago, dudarik gabe.





**PINTXOTAN**



## ***Txerri-belarri brotxeta galiziar eran***

**Zailtasun maila:**

Erraza.

**Prezioa:** 2,20 euro.

**Osagaiak:** Txerri-belarria, gatza, piperrauts mina eta oliba olioia.

Egosi txerri-belarria 30 minutuz presio-eltzean. Egositako dagoenean, zatitu eta zulatu zazpi zatitan, gutxi gorabehera. Azkenik, gatzarekin, piperrauts minarekin eta oliba-olioarekin ondu.

On egin!

## **JAI ALAI TABERNA**

**Ordutegia:**

Astelehenetan itxita.  
Astearterik igandera  
12:30etik 23:00etara

**Abaro estrata, 12.  
Zorrotza**



Iragar zaitez

**ZM**

ZORROTZ MORROTZ

aldizkarian!

Euskara sustatu  
Zorrotzan!


Tarifak eta informazioa:  
[zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com)



**FARMAKOTEGIA  
SUSANA  
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza  
Tlfno. 94 441 61 46

**Jai-Alai  
kafetegia**



Abaro estrata, 12  
94 490 12 59



## Galarraga (902 m.)

MANU COBO

Mendi hau Ganekogorta mendigunean dau, mendigunearen barruen garrantzia dauen bigarrena. Ekialdetik edo mendebaldetik begiratute, mendi zorrotz bat bezala agertzen da; iparraldetik edo hegoalde-tik begiratute, berriz, mahai bat emoten dau. Ganekogortatik (998 m) Pagero lepotik (797 m) bereizitako muino handi bat bezala agertzen da. Mendiaren izena antzinatik dokumentatzen da Donemiliaga

Kukula monasterioko kartulario batean, Galharraga bezala. Horregatik, autore batzuek Galarraga saihezbidea baino ez dabe onartzen, Gallarragaren ordez. Beste batzuk Galargain (gailur gainean) esaten dautsie. Bere pean dagoen Agilatos tontorrari men egiten.

Auzotik joateko Ganekorako bide berbera jarraituko dogu, Arraitz, Paga, Ganeko... eta hará heduko garenez ipar ekialdetik, beste aldera jo (ekimendebaldera), Pagero lepora jeitsi, zeharkatu eta aurrez aurre dekogun arkaitzetatik igo (eskuekaz lagundute baie arrisku barik, lau hanketakoez errez gainditzen dabe..)eta gailurrean agertuko gara.

Oso ibilbide polite da eta itxasaldetik en-karterri barrure sartuko gara tita baten. Jeisteko Sodupetik gomendagarrie izango zan, jeitsiera gogorre baie treña hartute auzora itzultzeko errazena da, atzera egitea Ganekora barriri igotzea gogorre egingo jakun eta Alonsotegira jeitea luze. Beste aukera bat da Agilatosera jeitsi eta Olakoa-gara..... gogorra ere....

Gallarragara igotzeko oso polite baie gogorra komentau dogun Olakoagatik, halan egiten ba dozu, prestatu lehenau.



## TXOKO FEMINISTA



Azaroaren 30ean greba feminista orokorra egin zen Euskal Herria osoan, zaintza eskubide kolektiboaren alde. Gaur egun zaintza etxe barruan kokatua dago batez ere, eta ondorioz ezkutukoa eta balio aitorturik gabekoa. Gainera, zaintza lanak merkantilizatuak, pribatizatuak, feminizatuak eta arrazializatuak daude hein handi batean, zaintzaileak gehienetan gizarte-egoera zaugarrian egonda. Epe laburrera eskatutakoak izan dira besteak beste: zain-

tza sistema publikoa indartzea eta garatzea; etxez etxeko laguntza zerbitzua indartzea eta garatzea; zaintzeko baimenak handitzea; eta gizonak interpelatzea, ez zaintzearen pribilegioari uko egin diezaioten eta zaintza lanetan ardura, besteak beste. Epe luzera, zaintza sistema publiko-komunitarioa garatzea eta bizitza erdigunean jarriko duen sistema sozial bat definitzea izango litzateke bidea, gaur egungo sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala gaindituko dituen.

IRATZE PÉREZ

## SALAKETA ARGAZKIA

### Lurpean egon beharrear, etxola batean berdegune bat kenduta.

Etorkizuneko Auzo etxea egongo den lekuan transformazio elektrikoko zentro bat dago, eraikin berria eraiki ahal izateko kendu behar dena. Udalak gune horren aurreko berdegunera eramango du elektrizitate-instalazio hau (horretarako 400 mila euroko aurrekontu-partida onartu da). Baina transformadore hori lurpean jarri beharrear, hormigoizko etxola baten barruan jarriko du, Azoka parkeko berdegune bat kenduta. Erabaki hori berdina izango zen Zorrotzako parkearen ordez Areatzan, Indautxun edo hiriguneko beste barrutiren batean egin beharko balitz hau bezalako jarduketa?




**ESKAINITZA  
PROGRESIBOETAN**  
**ARMAZOIA +  
KRISTALAK** GOI-GAMAKOAK  
**265€**

Sustapena indarrean 4-400 eferako eta 2.00 zilindroko arteko graduzioetarako  
RPS: 213/18

**ibarretaluxury**  
O F I C I A

**MESÓN  
LUNA**

*Etxeko berezitasuna; haragiak eta arrainak  
Itsaski-haztegi propioa  
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2  
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30  
www.mesonluna.es

## Bizitza lanbide

**I**l mestiere di vivere, alegia, *Bizitza lanbide* – 1997an Maite Lopetegik euskarara ekarri-izenburua jarri zion Cesare Paveseke bere egunerokoari. Bizimoduaren artea, bizitzearen erronka. *Ars vivendia*. Ez da txorakerietarako kontua. Bizitzea da denik eta abenturarik zirrargarriena, baina ez da arnaste, egote hutsa. Aitzitik, bizimodua eraiki beharra dago, erabakiak hartuz, aktiboki; erabakirik ez hartzea, hau da, haizeak nora gu hara, hori ere erabakirik hartzea delako. Egunerokoan gauzatzen da bizimodua, horretan zehazten ditugu egin beharreko zirt edo zartak, orduen pilaketa trinko horretan funtsatzen da, ondorioz, bizitza. Aldakorra da, dinamikoa, ezegonkorra. Hori dela eta, egunero borrokatu beharra dago, egunero jokatzeko baita partida. Parte-hartu behar dugu bizitzan, dadas bota. Hordago eta enbido. Kartak ez ditugu beti aukeratzeko, baina inork ez digu jokatu guk egin ezean.

Bizitzak zentzurik duen galdera zaharrari ez diot erantzunik aurkitu, baina argi dut zentzurik izatekotan guk geuk eraiki beharrekoa dela. Eraikuntza hori



ASIER URKIZA

“ *Aspaldian jendea nekatuta antzematen dut nik, etsiak hartuta.*

*Kopetilun samar*

*eta inertziak bezala*

*aurrera egiten. Ez da*

*joera berria, pandemia*

*arotik arrastaka*

*dakarguna baizik*

egunerokoa da, tai gabekoa. Eta ederra da, garratza da, goxoa da, gogorra da. Langintzaren metaforekin jarraituz, *Lavorare stanca* -*Lan egiteak nekatzen du*- du izenburu Pavesearen poema liburu batek. Bizitza nekagarria, biziminak eta ezinbiziak sarritan bizi gaituztenez. Izan ere, aspaldian jendea nekatuta antzematen dut nik, etsiak hartuta. Kopetilun samar eta inertziak bezala aurrera egiten. Ez da joera berria, pandemia arotik arrastaka dakarguna baizik. Korrontek eramate hori da, hain zuzen, bizitza lantzearen kontrakoa. Bizitza landu beharra

dago, bai, harginak harria nola, hari forma emateko, hura itxuratzeko. Eraman gaitzaten uztea -inertziak, sare sozialek, indiferentziak orokortuak, Twitterrek, gain-informazioak, Ideologiak- sistema petral honen ur sakonetan barneratzea da, bizimodu maingu bat besarkatzea. Ezerezerantz amiltzea, gero eta gutxiago gizaki, gero eta gehiago algoritmo. Alokutatuko bizimodu bat bizitzearen antzeko zer bait.

Ez dago erraz eta ez dago bide bakarrik. Cesare Paveseke buruaz beste egin zuen Torinoko hotel batean, 41 urte zituela. Izan zen bere bizitzaren aztartzaile zorrotza eta akaso zorrotzasun moral horrek eramane zuten galbidera. Akaso, eta paradoxikoki, bizitzarekiko gehiegizko atxikimenduak ekarri zion eguneroko errealitate mendeant hartzeko ezina, bere lagun Natalia Ginzburgi kasu egiten badiogu: “ez zion amore eman nahi eguneroko ibilbidea maitatzeari, zeina aurrera baitoa beti bat, eta itxuraz sekreturik gabe”. Bukaera tragikoa gorabehera, egunen joana maitatzeko adibide ederra ematen du piamontearrak. Hura sortzea, eraikitzea, ulertzea, besteekin batera egitea. Nork eraiki behar du berea, ordea, nork bere bidea urratu.



# Zorrotzako NATOren Aurkako Taldea eratu dogu eta lehen pausoak ematen hasiak gara

**N**ATO erakunde armatu bat da, Mendebaldeko kapitalismoa defendatzeko eta inperialismo gordinaren estrategian, beste herrialde batzuetan eskuak sartzeko, lapurretak egiteko edo gustatzen ez zaizkien gobernuak desagerrarazteko.

1986an egin zan erreferendumean Euskal Herriak ezetz esan eutsen NATOri baie naz eta hori, aurrera jarraitu dau gaur egun arte, gero eta diru gehiago sartzen armetan, naz eta beraiek eragindako krisiak egon.

Auzoko talde hau osatu zan, igaz Bilbon egin zan NATOren aurkako manian. Mani horretan, lagun batzuek ikusi gendun ikuspuntu antzekoak geneuzkala eta auzoan



Zorrotzako NATOren Aurkako Taldea

“ *Euskal Herriak ezetz esan eutsen NATOri 1986an, baie naz eta hori, aurrera jarraitu dau gaur egun arte, gero eta diru gehiago sartzen armetan, naz eta beraiek eragindako krisiak egon*

honen inguruen zeezer egin behar genduela.

Manirako propaganda zabaltzen hasi ginan eta gero aurrera egitea adostu gendun. Garaien Ukraniako guda egoan pilpilean eta horregaz abiatzeko puntu bet ikusi gendun. Donbasseko alkartasunako Bilboko taldeagaz kontaktuen jarri ginan eta gaiaren inguruko dokumental bat auzoan emateko ideia atera zan.

Geure artean ondo lotzeko eta Bilboko taldeagaz ondo finkatu arte, denbora joan da eta azkenean abenduan egin dogu ekitaldie, dokumental baten aurkezpena. Batera Karabana Antifaxistaren aurkezpena egin gendun eta Euskal Herria Donbass Komitearen aldizkariaren aurkezpena ere egin gendun.



**Vía gráfica**

viagraficazorrotza@gmail.com

**Disenya**

**cafe txinbo**

**Espezialitateak:**  
Tapak eta errazioak  
Kanapeak



Abaro estrata, 10  
Tel. 94 608 85 74

**LASTER** ⚡

**Elektrizitatea elektronika**

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35  
LARRIALDIK: 657 79 57 04  
www.electricidadlaster.net

**MENDIGAIN ETXALDEA ZORROTZA 48013**

**Denis**

Inguruko jende askok auzoan aparkatzen du dohainik delako, hemengoei lekuak kenduta... Alde batetik ondo, baina bestetik, txarto derizot aparkatzeagatik ordaindu behar izateari.

**Ana María**

Aldekoa naiz, hemengo bizilagunek aparkatzeko leku gehiago izango luketela uste baitut.

/ IRATZE PÉREZ

## TAO zerbitzua.

Zorrotzan ezartzearen alde ala kontra?

**Jon**

Nik ez dut kotxerik, baina Zorrotzan bizi direnentzat aparkatzeko aukera gehiago egon beharko liratekeela uste dut, nahiz eta ordaindu beharra ez zait bidezkoa iruditzen.

**Ana**

Aparkatzeagatik ordaintzeari txarto derizot. Udalari hau ordaintzeak beste zerbitzu batzuk ekarri beharko lituzke: segurtasuna handitzea, adibidez.

**Edu**

Horrek Zorrotzako egoiliarroi aparkatzeko aukera gehiago ekarriko lizkigukeela uste dut. Beraz, alde nago

**Taramona**

**ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75  
Telefona: 94 442 44 68

**TAILERRAK ETA ZERBITZUAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 75  
Telefona: 94 442 17 12

# RISKO

## Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7  
Telefona: 94 441 64 86

**ROCKET TAVERN**



Plater konbinatuak,  
hanburgesak,  
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

BILBO

# IHES GELA

URTARRILAK

26 / 27 / 28

OTSAILAK

2 / 3 / 4

17. logela



**Eman izena!**

[euskarazbarrabarra.eus/ihes-gela](http://euskarazbarrabarra.eus/ihes-gela)

**Bilbao**

**e//**  
EUSKARAZ  
ERAKUNDA

**iKasi**  
**MiKasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,  
ikastetxe publikoetan eta  
Zorrotzatik irten gabe**

 HEZIKETA, KULTURA, ENBIZIARIETAN  
Pinadia etbaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo  
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75  
📧 [stetecampas@gmail.com](mailto:stetecampas@gmail.com)

 HEZIKETA, KULTURA, ENBIZIARIETAN  
Ikastalde etbaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo  
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21  
📧 [014159aa@hezkuntza.net](mailto:014159aa@hezkuntza.net)

 ZORROTZA 010  
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo  
☎ 94 428 01 36  
📠 94 428 01 37  
📧 [015078aa@hezkuntza.net](mailto:015078aa@hezkuntza.net)  
[www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net](http://www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net)

Zorrotz Morrotzeko albistek, erreportajeak, elkarrizketak...

orain **sarean ere** irakurgai

[www.zorrotzmorrotz.eus](http://www.zorrotzmorrotz.eus)



Sartu gure webgune berrira!



- Aldizkariaren eduki guztiak web formatuan  
Elkarrizketak, erreportajeak albistek, ...
- Agenda  
Zorrotzako ekitaldi guztiak
- Hemeroteka  
ZMeko ale guztiak PDF formatuan

Eta baita sare sozialetan ere:

@zorrotzmorrotz

@ZorrotzMorrotz

@zorrotzmorrotz

**ZM**

**ZORROTZ MORROTZ**  
Zorrotzako herri aldizkaria